

**URRIA
2018**

Lanberriak

www.ccoo.eus

Convenio se escribe con “C”

Conflicto

Compromiso

Colectivo

CCOO

**Eskubideak berreskuratzeko unea da:
Negoziazio Kolektiboa desblokeatzen.
Langile guztiak babestuz.**

Negoiazio Kolektiboaren defentsa Euskadin, erronka konpartitua?

2017ko urtarrilean, Euskadin ordezkartza gehien duten lau sindikatuek Akordio Interprofesionala sinatu genuen negoziazio kolektiboaren egiturarekin lotuta dagoena. Bertan adostu genuen, Euskadin sinatzen diren lurralde hitzarmen edo hitzarmen autonomikoak estatu mailako hitzarmenen aurrean lehenetsuna izango dutela aplikazio ulean.

Zerk oztopatzen du helburu hau?

PSOE eta PPren lan erreformek, bi greba orokor egin genituen horiei erantzuna emateko, eta patronalaren zurruntasunak.

ELak sektoreko negoziazio kolektiboari egiten dion ukoa. Langileen %60 hitzarmenik gabe daude sindikatu horri esker.

Zergatik orain?

Susperraldi ekonomiko testuinguruan gaudelako.

BPGaren hazkundea %3aren gainetik dagoelako.

Ekoi-zenak eta enpresa mozkinak gora egiten dutelako krisiaren aurrekoak baino parametro handiagoetan.



Zein da gure proposamena ?

Helburuak:

Euskadin, negoziazio kolektiboaren ahultzeari konponbidea emango dion ibilbidea ezartzea.

Euskadin, negoziazio esparruak berreskuratzea, hau sektore desberdinetako errealitateetara gehien gerturatzen den eremua delarik.

Erosketa ahalmena berreskuratzea, soldata baxuenak hobetuz.

Desberdintasun tarteak desagertarazten saiatu.

Edukiak :

Hitzarmenean urtean, gutxienez, 14.000€ko soldata ezarri.

Gutxienez, %2 eta 3% arteko soldata igoerak soldaten erosteko ahalmena mantendu eta hobetzen ahalbidetuko duen berme klausularekin.

Hitzarmenen indarraldi mugagabea, berri batek ordezkatzeko duen arte mantenduta.

Hitzarmena ez aplikatzeko arrazoirik bada, hau langileen legezko ordezkartzarekin hitzartu behar da, beti ere, gutxienez, urtean 14.000€ko gutxienezko soldata mantenduta.

Lan merkatuan dagoen prekarietatearen aurkako neurriak ezarri.

Hitzarmenetan, aldi baterako kontratuentzat, urtean 20 eguneko kalte-ordaina ezarri.

Aurreraeragin egoeran dauden hitzarmenen kasuan, taulak dagozkien urteen KPIaren arabera gaurkotu 2017 arte eta gure proposameneko gainontzeko edukiak aplikatu.